

# Euskal zinemaren sasoi betea, bederatzi filmetan

IRENE ELORTZA GERENO

Zinemaldiaren 71. edizio honetan, Zinemirak fikziozko eta ez-fikziozko bederatzi film hartuko ditu bere baitan. Horietatik hiru, mundo estreinaldia izango dute Donostian, eta, ondorioz, Zinemaren Irizar Saria irabazteko hautagai izango dira. Guztira, bost ekoizpen lehiatuko dira saria eskuratzeko, izan ere, Isabel Hergueraren *El sueño de la sultana* animazio-filma (Sail Ofizialean) eta Bertha Gaztelumendi eta Rosa Zufia zuzendarien *Arnasa betean, emakume zinegileak* ere sarirako hautagai dira. Azken hori irailaren 26an Victoria Eugenia antzokian emango da, Euskal Zinemaren Galan.

Fermin Muguruza *Bidasoa 2018-2023* dokumentalarekin itzuliko da Zinemaldira. Pertsona migratzaileek Europara iristeko egindako bidaia eta mugak eragindako egoera dramatikoak dira musikari eta errealizadorearen lan berriaren ardatzak. Muguruzak Zinemaldiko hainbat sailetan erakutsi izan ditu bere lanak, hala nola Zabaltegin (*Zuloak*, 2012), Zinemiran (*Black is beltza*, 2018) eta Belodromoan (*Black is beltza II: Ainhoa*, 2022).

Zinemirako aspaldiko ezaguna da Josu Martinez zuzendaria ere. Aurreko edizio batzuetan *Sagarren denbora. 25 urte deserritik itzultzen* (2010), *Jainkoak ez dit barkatzen* (2018), *Caminho longe* (2020), eta *Paperezko hegoak (Alas de papel)*, 2021) filmak aurkeztu zituen. Aurtengoan, bi filmekin parte hartuko du Zinemira sailean: batetik, *Bizkarsoro* alegiazko herri batean kokaturiko bost istorio errealez osatutako fikziozko lana; bestetik, *Mi-*

*rande, film baterako zirriborroa*—ora indik polemikaz inguratuta dagoen Jon Mirande idazlearen bizitzaz eta lanaz hausnartzen duena.

Zinemaldian eman aurretik estreinatutako direlako lehiaketaz kanpo egon arren, beste sei filmek osatuko dute Zinemira saileko programazioa. Es-



Bizkarsoro filmeko irudi bat.

tibaliz Urresolaren *20.000 especies de abejas* filmak emango dio hasiera sailari, gaur bertan. Egilearen lehen film luzea Berlinalean estreinatutako eta Sofia Oterok antzezle protago-


nista onenaren Zilarrezko Hartza irabazi zuen. Geroago, sari eta aitortza ugari jaso ditu filmak.

Lehiaketaz kanpo emango dira baita ere Paul Urkijo Alijoren bigarren film luzea, *Irati*, Publikoaren Saria eraman zuena nola Sitgesen hala Donostiako Beldurrezko Zinemaren Astean; *Las buenas compañías*, Silvia Munt aktoreak zuzendutako bigarren film luzea; EQZEko ikasle ohia den Amat Vallmajor del Pozoren *Misión a Marte*, Xixongo zinema-jaialdian aipamena lortu zuena; *Tetuán*, Iratxe Fresnedaren lan berria, hainbat jaialditan emana, hala nola Xixonen, Zinebin eta Nantesen; eta Félix Viscarreten *Una vida no tan simple*, Malagan emana.

## Parte-hartze anitza

Guztira 19 lanez –15 film luzez, film ertain batez, film labur batez eta bi telesail ez osatuta egongo da Donostia Zinemaldiaren 71. edizio honetako euskal parte-hartzea, sail hauetan banatua: Sail Ofiziala, Donostia Sariaren Emanaldi Bereziak, Zabaltegi-Tabalakera, Made in Spain, Zinemira, Belodromo eta Euskal Zinemaren, EITB eta RTVE galak.

Zinemira Kimuak ekimenean, berriaz, zazpi lan aurkeztuko dira: *Deadly Draw (Sorteo mortal)* (Nitya López), *El aprendiz* (Raúl Campos), *El rey de la semana* (David Pérez Sañudo), *La mujer ilustrada / The illustrated woman* (Isabel Herguera), *Prioridades / Priorities* (Tamara Lucarini), *Sorbeltza* (Iban del Campo) eta *Ximinoa / The monkey* (Itziar Leemans).



## Paco Sagarzazu, 4x4 aktorea

Zinemaldiak eta EPE eta IBAIA ekoizle-elkarrekin Paco Sagarzazu Badiola (Donostia, 1940) aktorea omendu eta bere ibilbide oparoa aitortuko dute aurtengo Zinemira Saria emanda. Datorren irailaren 26an Victoria Eugenia antzokian egingo den Euskal Zinema Galan jasoko du saria Sagarzazuk.

70eko hamarkadan hasi zen zinemagintzan, Balantzatxo antzezlan zinemara egokitu zenean. Idazle, kazetari, erredaktore eta gidoigile gisa lan egiten zebilela, *La fuga de Segovia* filmerako casting-erantzulea aurkeztu eta aktore-zerrendako preso baten rola eman zioten. Harrez geroztik, euskal zinemari oso estu lotuta egon zaio Sagarzazu, eta Montxo Armendáriz, Eloy de la Iglesia, Ana Díez, Daniel Calparsoro, Gracia Querejeta, Juanma Bajo Ulloa, Javier Fesser, Álex de la Iglesia eta Aritz Moreno zuzendariekin lan egin du, besteak beste.

Sagarzazuk film laburretarako proiektu ugari ere erakutsi du bere bikaintasuna (*Alsasua 1936*, *Muerto de amor*, *Txotx*, *Artalde*, *Cólera*). Gainera, telebistarako proiektu garrantzitsuetan ere lan egin izan du, eta antzerkian ere interpretazio ahaztezinak egin ditu.

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival | EUSKADI BASQUE COUNTRY | Irizar | eitb

# Zinemira

www.sansebastianfestival.com

SSIFF 2023 Iraila Septiembre 22/30 71

## SADE PRÓXIMAMENTE EN NUESTRAS SALAS DE CINE



Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián Colaborador

